

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gaur egungo ile-lehorgailu “normal”-ak zarata gehiegi egiten dute, eta ondorioz, deserosotasuna sortzen dute gehien bat pisukideak dituzten jendeei. Gure ile-lehorgailu isila helburu bezala zarata eta gatazkak gutxitzea du. Modu honetan, musika entzuteko, hitz egiteko... aukera daukazu ilea lehortzen ari zaren bitartean.

Helburu nagusia ilea lehortzearen espertientzia hobetzea da. Horretarako, ile-lehorgailuaren diseinua eguneroko erabilerarako diseinatuta dago. Diseinuari begira, estetikoki gaur egungo ile-lehorgailu “normal” baten berdina izango da, eroso iruditzen zaigulako. Gehitu duguna antideslizante bat heldulekua da, erosotasun gehiago edukitzeko. Kablearen luzerari buruz, 2 metrokoa izango da. Luzera hori aukeratu dugu ile-lehorgailua erabiltzen ibiliko denak erosotasun gehiago edukiko duelako eta ez dituelako postura arraroak eta deserosoak egin beharko.

Pisuari begira, 400 gramokoa izango da. Gaur egungo ile-lehorgailuak pisu hori dutelako eta eroso egiten zaigulako. Baita ere, modu honetan, besoa ez zaizulako hainbeste nekatzen.

Eta azkenik, koloreei begira, arrosa, beltza eta zuria izango dira, adin guztieratako pentsatuta daudelako. Materialak, (horiei buruz asko bilatu eta informatu ondoren), erabiki dugu plastikozkoak eta titanezkoak izango direla: plastikozkoak arintasuna ematen duelako; eta titanioak, berriz, iraunkortasuna, erresistentzia eta itxura modernoak.

